baki zuen Energiaren Euskal Erakundeari baimena ematea Enerjia eta Meatzen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia – CADEM., S.A. sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko, zehazki, kapital-gehikuntzaren %100 (1.200.000 euro) harpidetzeko eta ordaintzeko. Horretarako, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraituz, beharrezkoa da Jaurlaritzaren Kontseiluak baimena ematea.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko azaroaren 30ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–* Energiaren Euskal Erakundeari Enerjia eta Meatzen Aurrezte eta Hazkuntzarako Aztertegia – CADEM, S.A. Sozietatearen milioi bat eta berrehun mila euroko (1.200.000 euro) kapital-gehikuntzan parte hartzeko eta gehikuntza horren %100a harpidetzeko baimena ematea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau onartzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko azaroaren 30ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

lio de 2004 el Acuerdo de autorizar al Ente Vasco de la Energía la suscripción y desembolso del 100% de la ampliación de capital que, por importe de 1.200.000 euros, llevará a cabo la sociedad Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero, S.A. - CADEM y requiriendo, de conformidad a lo expuesto en el párrafo anterior, de autorización del Consejo de Gobierno.

En su virtud, a propuesta de las Consejeras de Hacienda y Administración Pública y de Industria, Comercio y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 30 de noviembre de 2004,

DISPONGO:

*Artículo único.–* Se autoriza al Ente Vasco de la Energía la toma de participación en la ampliación de capital de la Sociedad Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético y Minero, S.A. – CADEM, por importe de un millón doscientos mil euros (1.200.000 euros), así como a suscribir el 100% de dicha ampliación.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos el día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de noviembre de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## Zk-6401

EBAZPENA, 2004ko azaroaren 24koa, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten irakasleei dei egiten diena enpresetan prestakuntza-egonaldiak egin ditzaten 2004/2005 ikasturtean.

Lanbide Heziketaren eredu berriak azpimarratzen duenez, irakaskuntza-ikaskuntzako prozesua lan-bizitzari lotu behar zaio, eta hezkuntza-eskaintza lan-merkatuaren eskaerari egokitu. Eredu horrek, halaber, irakasleen etengabeko prestakuntza sustatu eta errazten

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## N°-6401

RESOLUCIÓN de 24 de noviembre de 2004, del Director de Aprendizaje Permanente, por la que se convocan Estancias de Formación en Empresas para el profesorado que imparte Ciclos Formativos de Formación Profesional para el curso 2004-2005.

El nuevo modelo de Formación Profesional destaca la necesidad de vincular el proceso de enseñanza aprendizaje con la vida laboral y adaptar la oferta educativa a la demanda del mercado laboral, así como fomenta y favorece la Formación Permanente del profesorado, ga-

du, eta prestakuntza-jarduera anitzen eskaintza bermatzen. Jarduera horien artean, nabarmentzekoa da enpresetan gauzatzen den prestakuntza.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2004ko maiatzaren 11ko Aginduak (maiatzaren 27ko EHAA) planteatu duenez, jarduera-planak eratu behar dira, eta horien bidez egoki erantzun behar zaie irakasleen eguneroko jardueran sortzen diren premiei; horregatik, irakasleen lanbide-garapena erraztuko duten prestakuntza-jarduerak egitea aurreikusi da.

Agindu horrek, beraz, honako hauek arautu ditu: alde batetik, Lanbide Heziketako irakasleentzako 2004-2005 Prestakuntza Planaren barruko ikastaroen deialdia, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten irakasleei zuzendua; eta bestetik, aipatutako ikastaroak gainditu dituzten irakasleei laguntza ekonomikoak ematea.

Agindu horren 2.1 artikuluak dioenez, halaber, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariaren ebazpen baten edo batzuen bidez emango da ikastaro horien ezaugarrien berri.

Hori guztia horrela, aipatu aginduaren babesean ateratzen den ebazpen honek deialdia egin nahi du, irakasleen etengabeko prestakuntzarako beste jarduera bat gauzatu dadin; hain zuzen ere, enpresetan prestakuntza-egonaldiak egitea xede duena.

Ondorioz, honako hau

EBATZI DUT:

*1. artikulua.–* Deialdiaren helburua.

1.– Enpresetan prestakuntza-egonaldietan jarduteko deia egitea, irakasleen prestakuntza gaurkotu dadin lan-munduari begira; hartara, praktika hauek irakaslelana hobetzeko mesedegarri izan daitezke, eta enpresak eta Lanbide Heziketako ikastetxeak elkarri hurbiltzen lagun dezakete.

2.– Prestakuntza egonaldiak EAEko enpresa edo entitateetan egingo dira, eta irakasleak edo ikastetxeak aurretiaz hitzartu beharko du horiekin proiektuaren garapena.

*2 artikulua.–* Egonaldien ezaugarriak.

1.– a) Egonaldiok ikasturtearen azken hiruhilekoan egingo dira, edo, lehentasunez, ikasleak lantokietako prestakuntza (LP) egiten ari direnean.

b) Enpresan egiteko egonaldia ez da bat etorriko irakaslearen ordutegi lektiboarekin, eta, beraz, ez dio ohiko irakas-jarduerari eragingo.

2.– a) Egonaldiaren iraupena gutxienez 30 ordu eta gehienez 80 ordu izango da. Ordu horiek 20 lanegunetan banatu ahal izango dira, gehienez ere.

b) Gehienez ere, ikastetxe bakoitzeko 5 irakaslek parte ahal izango dute egonaldietan.

rantizando una oferta diversificada de actividades de formación, entre las que destaca la formación en empresas.

En la Orden de 11 de mayo de 2004 (BOPV del 27 de mayo de 2004) de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación se plantea la necesidad de elaborar planes de actuación que permitan responder a las necesidades que se ponen de manifiesto en la práctica docente y se plantea la realización de actividades de formación que posibiliten el desarrollo profesional del profesorado.

Así mediante esta orden se reguló la convocatoria de cursos del Plan 2004-2005 de Formación del Profesorado de Formación Profesional, dirigidos al profesorado que imparte Ciclos Formativos de Formación Profesional, así como la concesión de ayudas económicas al profesorado que haya superado los mencionados cursos.

En su artículo 2.1, se menciona que las características de los cursos se harán públicas mediante una o varias resoluciones del Director de Aprendizaje Permanente.

Es por todo ello que mediante esta nueva Resolución, emitida al amparo de la citada Orden, se pretende convocar una nueva actividad de Formación Permanente del Profesorado, denominada Estancias de Formación en Empresas.

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.–* Objeto de la convocatoria.

1.– Convocar Estancias de Formación en Empresas, para la actualización de la formación del profesorado en relación con el mundo laboral, pudiendo así utilizar estas prácticas en la mejora de la labor docente y contribuir al acercamiento entre los Centros de Formación Profesional y las Empresas.

2.– Las estancias de formación se realizarán en empresas o entidades de la CAV, con las que el profesor ó el Centro concierte previamente la realización de un proyecto.

*Artículo 2.–* Características de las estancias.

1.– a) Las estancias se realizarán durante el último trimestre del curso escolar o preferentemente en el periodo en el que los alumnos estén realizando la Formación en Centros de Trabajo (FCT).

b) El periodo de estancia en la empresa no coincidirá con el horario lectivo del profesor y por ello no afectará al desarrollo normal de las actividades docentes.

2.– a) La duración de la estancia deberá oscilar entre un mínimo de 30 horas y un máximo de 80, repartidas en un máximo de 20 días laborales.

b) El número máximo de profesores por Centro que podrán participar en las estancias es de 5.

c) Irakasle bakoitzak egonaldi bakarra egin ahal izango du.

3.– Enpresetan egindako egonaldiok ez dute lan-izaerarik, eta, beraz, egonaldia egiten duten irakasleek eta egonaldia errazten duen enpresak ez dute inolako lan-harremanik izango.

*3. artikulua.*– Eskatzaileak.

1.– a) Jarduneko irakasleek deialdi honetako egonaldietan parte hartu ahal izango dute, baldin eta Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen badituzte (heziketa-ziklo horiek, gogoratu, ondokoak dituzte arau: azaroaren 22ko 447/1994 Dekretua, Lanbide Heziketako irakaskuntzen antolamendu orokorra eta bere tituluei buruzko norabideak ezartzeko dena, eta apirilaren 29ko 97/1997 Dekretua, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntzaren ezarpena eta dagozkien tituluei buruzko jarraibideak arautzen dituena).

b) 2003-2004 ikasturteko deialdiaren arabera prestakuntza-egonaldiren bat burutu zuten irakasleek ezin izango dute deialdi honetan parte hartu.

2.-Bestalde, egonaldia bat baldin badator ikasleen eskola-aldiren batekin, ikastetxearen zuzendaritzaren baimena beharko da, eta ikastetxeak, gainera, konpromisoa hartu beharko du, prestakuntzako egonaldiak ohiko irakas-jardunari eragingo ez diola bermatzeko.

3.– Honako hauek bidaliko dira eskabidearekin batera:

a) III. eranskinean dagoen ereduaren araberako ziurtagiria, hautatutako enpresa edo entitatea eskatzailea onartzeko prest dagoela jasotzen duena.

b) Proiektu bat, gutxienez ondoko atalak izango dituena:

– Proiektuaren datuak: izenburua, enpresaren datuak, iraupena, datak, eta abar,...
– Proiektuaren helburu orokorrak.
– Proiektuaren justifikazioa, gaurkotze profesionalari begira.
– Programatutako jarduerak, eta horiek irakatsitako moduluekin duten zerikusia.

Balorazio-batzordeak balioetsiko ditu proiektuak, 1-A eranskinean agertzen den baremoaren arabera. Gutxienez 5 puntu atera behar dira aukeratua izateko.

*4. artikulua.*– Eskabideak

1.– Eskabideak aurkezteko lekuak:

Eskabideak Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariari igorriko zaizkio, eta lantokiari dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako unitatera bidali behar dira:

– San Prudentzio, 18 Vitoria-Gasteiz Araba

c) Cada profesor podrá realizar una única estancia.

3.– Las estancias en empresas no tienen carácter laboral y por lo tanto el profesorado no tendrá ninguna relación laboral con la empresa en la que realiza la estancia.

*Artículo 3.*– Aspirantes.

1.– a) Podrán tomar parte en las estancias objeto de la presente convocatoria los profesores/as que se encuentren en activo y que impartan Ciclos Formativos de Formación Profesional, regulados por el Decreto 447/1994, de 22 de noviembre, por el que se establece la ordenación general de las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos y por el Decreto 97/1997, de 29 de abril, por el que se establece la regulación del Bachillerato, las enseñanzas de Formación Profesional y las directrices sobre sus títulos y se dispone su implantación.

b) No podrán participar en esta convocatoria los profesores que en la convocatoria para el curso 2003-2004 realizaron Estancia de Formación.

2.– Además, para las estancias a desarrollar coincidentes con periodos lectivos del alumnado se deberá contar con la autorización de la dirección del centro, constando el compromiso del centro de garantizar que la estancia formativa no influirá en el desarrollo normal de las actividades docentes.

3.– Juntamente con la solicitud, se deberán remitir:

a) Certificado, según modelo recogido en el anexo III, en el que conste la disponibilidad de la empresa o entidad seleccionada para la admisión de la persona solicitante.

b) Un proyecto, que recogerá como mínimo los siguientes apartados:

– Datos del proyecto: título, datos de la empresa, duración, fechas, etc.
– Objetivos generales del proyecto.
– Justificación del proyecto para la actualización profesional.
– Actividades programadas y su relación con los módulos impartidos.

Los proyectos serán valorados por la comisión de valoración, conforme al baremo que se recoge en el anexo 1-A, debiendo obtener un mínimo de 5 puntos para ser seleccionados.

*Artículo 4.*– Solicitudes.

1.– Lugar de presentación:

Las solicitudes, que irán dirigidas al Director de Aprendizaje Permanente, se remitirán a las Unidades de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente de las Delegaciones Territoriales de Educación correspondientes al centro educativo:

– San Prudencio, 18 Vitoria-Gasteiz Araba/Álava

– Gran Via, 85 Bilbao Bizkaia
– Andia, 13 Donostia-San Sebastián Gipuzkoa

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean adierazitako bulegoetara ere bidal daitezke eskabideak. Jatorrizko eskabideak baino ez dira onartuko, behar bezala zigilatu eta izenpetutakoak.

2.– Eskabideak aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea 2004ko abenduaren 16tik 2005eko urtarrilaren 31ra arte luzatuko da, hasierako eta amaierako eguna barne direla.

3.– Eskabide-inprimakia:

a) Eskabidea II. eranskinean ageri den ereduaren arabera aurkeztuko da.

b) Eskabideak ikastetxeko zuzendariaren oniritzia eramango du. Egonaldiaren ordutegia bat datorrenean irakas-ordutegiaren zati batekin, zuzendaritzaren oniritziak honako hau ere esan nahiko du: batetik, irakaslea ez egotea onartzen duela, ikastetxeak barne-antolamendurako duen gaitasunean oinarrituta, eta bestetik, ikastetxeko ordezkaritza-organo gorena edo eskola-kontseilua jakinaren gainean dagoela. Nolanahi ere, oniritzi horrek esan nahi du aitortu egiten dela irakasleak ikastetxe horretan diharduela irakasle-lanean, eta aurkeztutako lan- eta administrazio-datuak egiazkoak direla (ikastetxeko zuzendaritzak egiazta ditzakeen puntuei dagokienez)

4.– Agiri osagarriak:

a) Eskatzaileak nahi baldin badu sare pribatuko zerbitzaldia kontuan har dakion baremoaren ondorioetarako, dagokion egiaztagiria aurkeztu beharko du.

b) Sail honetako langileen datu-basean ez dauden eskatzaileek NANaren kopia aurkeztu beharko dute.

*5. artikulua.–* Hautatzeko irizpideak.

1.– Prozesu honen arabera hautatuko dira parte-hartzaileak:

Proiektuaren balorazioan gutxieneko 5 puntuak lortu ez dituzten izangaien eskaerak eta eskatutako baldintzetakoren bat betetzen ez dutenenak baztertu ondoren, gainerakoak 1-A eranskinean dagoen baremoaren arabera ordenatuko dira. Irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketarik gertatuz gero, 1-B eranskinean dagoen baremoaren arabera jokatuko da; hala ere, berdinketak bere horretan badirau, lanean emandako urteen kopuruaren arabera ebatziko da, azkenik.

*6. artikulua.–* Deialdia ebaztea eta onarpena jakinaraztea.

1.– Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariak ebatziko du deialdia, batzorde batek proposamena egin ondoren. Batzorde horrek ondoko kideak izango ditu: Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzako funtzionario bat, batzordeburu arituko dena, eta Etengabeko Ikaskuntza-

– Gran Vía, 85 Bilbao Bizkaia
– Andía, 13 Donostia-San Sebastián Gipuzkoa

También podrán remitirse a las dependencias indicadas en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Sólo se admitirán solicitudes originales, debidamente selladas y firmadas.

2.– Plazo de presentación:

El plazo de presentación de solicitudes se extenderá desde el día 16 de diciembre de 2004 al 31 de enero de 2005 ambos incluidos.

3.– Impreso de solicitud:

a) El escrito de solicitud será presentado conforme al modelo correspondiente que figura en el anexo II.

b) La solicitud llevará el visto bueno del director o directora del Centro. Cuando el horario de la estancia coincida parcialmente con el horario docente, el visto bueno de la Dirección implicará que el Centro asume la ausencia en base a su capacidad de organización interna y que el Órgano Máximo de Representación o el Consejo Escolar del Centro está informado. En cualquier caso, este visto bueno implica el reconocimiento de que el solicitante es docente en activo en dicho Centro y que son ciertos los datos laborales y administrativos aportados (en aquello que pueda ser certificado desde la Dirección del Centro).

4.– Documentación complementaria:

a) Las personas que deseen hacer valer el tiempo de servicio en la red privada, a efectos de baremo, deberán adjuntar la documentación acreditativa correspondiente.

b) Las personas no dadas de alta en la base de datos de personal de este Departamento deberán adjuntar fotocopia del DNI.

*Artículo 5.–* Criterios de selección.

1.– La selección de participantes se realizará de acuerdo con el siguiente proceso:

Excluidas las solicitudes de aquellos aspirantes que no hayan obtenido un mínimo de 5 puntos en la valoración del proyecto y aquellos que no reúnan alguno de los requisitos exigidos, se ordenarán las restantes conforme al baremo establecido en el anexo 1-A. Si, después de aplicados dichos baremos, existieran casos de empate, se aplicará el baremo contenido en el anexo 1-B; si aún así persistiera el empate, decidirá en último término el tiempo de servicio.

*Artículo 6.–* Resolución de la convocatoria y notificación de la admisión.

1.– La convocatoria será resuelta por el Director de Aprendizaje Permanente, a propuesta de una Comisión formada por un/a funcionario/a de la Dirección de Aprendizaje Permanente, que la presidirá, y funcionarios del Departamento designados por el Director de

ko zuzendariak izendatutako Hezkuntza Saileko funtzionarioak: gutxienez hiru, eta gehienez bost.

2.– Deialdiaren behin-behineko zerrendak argitaratzeko ebazpenak Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan jarriko dira ikusgai.

3.– Interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzan, hamar eguneko epearen barruan, behin-behineko ebazpena argitaratzen den biharamunetik hasita.

4.– Behin betiko zerrenda orokorra duten ebazpenak Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan argitaratuko dira. Gainera, aldi berean, Internet-eko ondoko helbideetan ere argitaratuko dira: www.hezkuntza.ej-gv.net www.euskadi.net/etengabeikasi

5.– Ebazpen horien aurka, interesdunek gorako errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Lanbide Heziketako eta Etengabeko Ikaskuntzako sailburuordeari, hilabeteko epearen barruan, lurralde-ordezkaritzetan jendaurrean jartzen direnetik hasita.

6.– Behin betiko zerrendak argitaratu ondoren, ez da uko egiterik onartuko, Etengabeko Ikaskuntzako zuzendariaren iritziz ondo arrazoituta dauden kasuetan izan ezik. Uko egitearen jakinarazpena Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzara bidali beharko da, uko egite hori justifikatzen duen gertakaria jazo eta berehala, eta bakarrik onartuko da dagokion agiriekin batera aurkezten bada.

7. ***artikulua.***– Parte hartzeko baldintzak.

1.– Irakasleek nahitaez egin beharko dituzte enpresako egonaldirako programatu diren jarduera guztiak.

2.– Egonaldia bukatzean, parte-hartzaileek memoria bana egin beharko dute, eta ondoko edukiak sartu:

a) Egonaldian garatutako programa, egindako lana jasoz.

b) Erdietsitako helburuak.

c) Egonaldiaren iraupena, ordutegia eta egutegia.

d) Egonaldia gauzatzeko izan diren baldintza fisikoak.

e) Balioespen orokorra.

f) Irakaskuntzan eta ikastetxean izan dezakeen eragina.

g) Ondorioak eta iradokizunak

3.– Memoria hori lurralde-ordezkaritzetako Lanbide Heziketa eta Etengabeko Ikaskuntzako unitateetan aurkeztu beharko da, 15 eguneko epean gehienez ere, jarduera bukatu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

4.– Memoriarekin batera, enpresaren ziurtagiria bidali beharko da, IV. eranskinaren ereduaren arabera, guztira emandako orduak egiaztatzeko.

Aprendizaje Permanente, en número mínimo de tres y máximo de cinco.

2.– La Resoluciones con las listas provisionales de la Convocatoria serán publicadas en las Delegaciones Territoriales de Educación.

3.– Los interesados podrán presentar sus reclamaciones ante la Dirección de Aprendizaje Permanente durante un plazo de diez días, a contar desde el día siguiente a la publicación de la Resolución Provisional.

4.– Las Resoluciones con las listas generales definitivas se harán públicas en las Delegaciones Territoriales de Educación. Simultáneamente se publicarán en las siguientes direcciones de internet: www.hezkuntza.ej-gv.net y www.euskadi.net/etengabeikasi

5.– Contra dichas Resoluciones los interesados podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente, en el plazo de un mes desde su publicación en las Delegaciones Territoriales.

6.– Una vez publicadas las listas definitivas, no se admitirá renuncia, salvo en los casos debidamente justificados, a juicio del Director de Aprendizaje Permanente. La comunicación de la renuncia deberá enviarse a la Dirección de Aprendizaje Permanente, inmediatamente después de que se produzca el hecho que la justifica y sólo será admitida en caso de que sea acompañada por el correspondiente soporte documental.

***Artículo*** 7.– Condiciones de participación.

1.– El profesorado estará obligado a realizar todas las actividades programadas para la estancia en la empresa.

2.– Una vez finalizada la estancia, los participantes deberán elaborar una memoria con el siguiente contenido:

a) Programa desarrollo de la estancia, haciendo constar el trabajo realizado.

b) Objetivos alcanzados.

c) Duración de la estancia, horario y calendario de realización.

d) Condiciones físicas en las que se ha realizado.

e) Valoración global.

f) Incidencia en el Centro y en la docencia.

g) Conclusiones y sugerencias.

3.– La memoria se presentará en el plazo máximo de 15 días, contados a partir del siguiente al de la finalización de la actividad en las Unidades de Formación Profesional y Aprendizaje Permanente de las Delegaciones Territoriales de Educación.

4.– Junto con la memoria deberá remitirse un certificado de la empresa, según modelo que se recoge en el anexo IV, que acredite el número total de horas realizadas.

*8. artikulua.–* Parte-hartzaileentzako laguntza ekonomikoak.

1.– Prestakuntza-jarduerotan parte hartzeko eskaria egiteak berez dakar laguntza ekonomikoetarako eskaria ere egitea; laguntza ekonomiko horiek, hain zuzen ere, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren 2003ko uztailaren 22ko Aginduaren 8. artikuluan aurreikusitakoak dira (Agindu horrek, gogoratu, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten irakasleei zuzendutako 2003-2004 Planeko Lanbide Heziketako Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako ikastaroen deialdia arautu du eta 2003ko abuztuaren 28ko EHAAn argitaratu da)

2.– Ebazpen honen bitartez deitutako jarduèretan parte hartzen duten irakasleek eskubidea izango dute goian adierazitako laguntza ekonomikoak jasotzeko, baldin eta:

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jarduerotan parte hartzeko hautatu baditu, irakasleek eskaera egin ondoren.

b) Parte hartzen duten irakasleak zein herritan bizi edota lanean ari diren, prestakuntza-egonaldia beste herriren batean egiten badute. Prestakuntza-egonaldia lantegi bat baino gehiago duen enpresan egiten bada, kilometroak kalkulatzeko orduan, enpresaren egoitza soziala edo nagusia hartuko da kontuan.

c) Memoria eta enpresak emandako ziurtagiria bidaltzen badituzte, ebazpen honetako 7. artikuluaren arabera.

*9. artikulua.–* Ziurtagiriak

1.– Aintzatespen, ziurtapen eta erregistroaren ondorioetarako, enpresetan egindako prestakuntza-egonaldiak, irakasleen etengabeko prestakuntzarako jarduera diren aldetik, prestakuntza-ikastaroekin parekatu daitezke.

2.– Parte-hartzaileei ziurtagiri bana emango zaie, egindako ordu-kopurua eta jarduera egin duten enpresaren izena jasoko dituena. Ziurtagiri hori emateko epea, gehienez ere, hiru hilabete izango da, memoria eta enpresaren ziurtagiria Etengabeko Ikaskuntzako Zuzendaritzan aurkezten direnetik aurrera.

3.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 44.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, behin lehenago aipatutako epea igarota pertsona interesdunari jakinarazi ez bazaio ziurtagiria luzatu dela edota laguntza ekonomikoak emanda daudela, horiek ukatu egin direla ulertuko da. Halakoetan, pertsona interesdunek sei hilabeteko epea izango dute, jarduera amaitzen denetik aurrera, ziurtagiria eman ez izanaren aurkako errekurtsoa aurkezteko. Epe hori igarota, ez da inolako ziurtagiririk emango, non eta aurkeztutako errekurtsoen baiezko ebazpenik edo epairik ez dagoen.

*Artículo 8.–* Ayudas económicas a las personas participantes.

1.– La solicitud para participar en las actividades de formación contendrá implícita la solicitud de concesión de las ayudas económicas que se regulan en el artículo 8 de la Orden de 22 de julio 2003 (BOPV de 28 de agosto), de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, que regula la convocatoria de cursos del Plan 2003-2004 de Formación Permanente del Profesorado de Formación Profesional, dirigidos al profesorado que imparte Ciclos Formativos de Formación Profesional.

2.– El profesorado participante en las actividades convocadas por medio de esta Resolución tendrá derecho a las ayudas económicas antes mencionadas siempre que:

a) Los profesores asistentes hayan sido seleccionados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación para participar en tales actividades, previa solicitud de los mismos.

b) El profesorado participante realice la estancia de formación en una localidad diferente a aquella donde trabaja y/o reside. Cuando la Estancia de Formación se realice en empresas que dispongan de varias dependencias, el cálculo del kilometraje se realizará hasta la localidad donde esté la sede social o principal de la empresa.

c) El profesorado remita la memoria y certificado de asistencia emitido por la empresa, tal y como consta en el artículo 7.

*Artículo 9.–* Certificados.

1.– A efectos de reconocimiento, certificación y registro, las estancias de formación en empresas, como actividad de formación permanente del profesorado, son asimilables a cursos de formación.

2.– A los participantes se les emitirá un certificado en el que conste el número de horas realizadas y la empresa en la que han realizado la actividad, en el plazo máximo de tres meses a contar desde que la memoria y el certificado de la empresa se entreguen en la Dirección de Aprendizaje Permanente.

3.– De conformidad con lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativos Común, si una vez transcurrido el plazo antes mencionado no hubiera sido notificada a la persona interesada la emisión de la certificación y/o la concesión de las ayudas económicas que fueran pertinentes, se considerará como denegación de las mismas. Las personas interesadas dispondrán de un plazo de seis meses, a partir del término de la actividad, para presentar recurso por la no concesión del certificado. Pasado este plazo, no se emitirá certificación alguna, excepto Resolución positiva de los recursos presentados o sentencia judicial.

4.– Jarduerak gainditu ez gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren irakasleen prestakuntzarako eta berriztapenerako jardueren datu-basean erregistratuko da hori. Interesdunek datu-basea kontsultatu ahal izango dute, indarrean dagoen araudiaren arabera, eta prestakuntza- eta berriztapen-jardueren ziurtagiria ere eskatu ahal izango dute.

***10. artikulua.***– Aseguru osagarria.

Prestakuntza-egonaldiotan parte hartzen duten irakasleek erantzukizun zibileko eta istripuetako aseguru osagarri baten babesa izango dute. Sare publikoko irakasleek EAEko Administrazioaren zerbitzupeko langile izateagatik dagokien asegurua izango dute; sare pribatuko irakasleei, berriz, aseguru-hedapena egingo zaie, nominala eta egonaldiak dirauen bitartekoa, estaldura bera izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko azaroaren 24a.

Etengabeko Ikaskuntzako zuzendaria,
JOSU ABOITIZ BILBAO.

4.– La superación de las actividades dará lugar a su registro en la base de datos de actividades de innovación y formación del profesorado del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, base de datos que podrá ser consultada por los interesados de acuerdo con la normativa vigente y de la que podrán pedir el Certificado de Actividades de Innovación y Formación.

***Artículo 10.***– Seguro complementario.

Los profesores que participen en estas estancias formativas estarán cubiertos por un seguro complementario de responsabilidad civil y de accidentes. Para los profesores de la red pública, dicho seguro es el que les corresponde como personal al servicio de la Administración de la CIAV. y para los profesores de la red privada, se efectuará una ampliación, que será nominal y para el tiempo que dure la estancia, de tal forma que tengan la misma cobertura.

En Vitoria-Gasteiz, a 24 de noviembre de 2004.

El Director de Aprendizaje Permanente,
JOSU ABOITIZ BILBAO.

# I. ERANSKINA

A) Proiektuaren Balorazioa

Aurkeztutako memoria baloratuko du batzordeak, ondoko irizpideen arabera:

a) Planteatutako helburuak deialdi honen helburuekin bat etortzea, eta ikastetxean aplikatzeko modukoak izatea (3 puntu, gehienez ere).

b) Proposaturiko jarduerak enpresan egiten diren jarduerei egokitzea (3 puntu, gehienez ere).

c) Irakasle eskatzaileak ematen dituen moduluak bat etortzea proiektuaren eta hautatutako enpresaren jarduerekin eta helburuekin (3 puntu, gehienez ere).

d) Hautatutako enpresa, irakasleak lanpostua duen ikastetxearen inguruan egotea (puntu 1).

Guztira, gehienez: 10 puntu

B) Berdinketarik gertatuz gero erabili beharrekoak:

| I) Administrazio-egoera | gehienez 6 puntu |
|---|---|
| 1.– Sailaren mendeko ikastetxeetan karrerako funtzionarioa edo lan-kontratu mugagabeduna izatea: | 4 puntu |
| 2.– Egonkortasuna duen bitartekoa izatea: | 3 puntu |
| 3.– Ikastetxe pribatuetan lan-kontratu mugagabeduna izatea: | 2 puntu |
| 4.– Kendu diren unitateetako irakasle izatea: | 2 puntu |
| II) Lan-esperientzia | gehienez 4 puntu |
| Hezkuntzan emandako zerbitzu-urteak, 2004ko urtarrilaren 31ra arte (hori barne): 0,5 puntu urteko, 0,042 hilabeteko eta 0,0014 eguneko | |
| Guztira Gehienez | 10 puntu |

*ANEXO I*

*A) Valoración del Proyecto.*

*La Comisión valorará la memoria presentada de acuerdo con los siguientes criterios:*

*a) Adecuación de los objetivos planteados a los objetivos de esta convocatoria y su aplicación en el centro (hasta 3 puntos).*

*b) Adecuación de las actividades propuestas a las operaciones que se realizan en la empresa (hasta 3 puntos).*

*c) Idoneidad de los módulos impartidos por el profesor solicitante con los objetivos y actividades del proyecto y la empresa seleccionada (hasta 3 puntos).*

*d) Situación de la empresa seleccionada en el entorno del centro en el que el profesor tiene su destino (1 punto).*

*Total máximo: 10 puntos*

*B) Complementario en caso de empate.*

| | |
|---|---|
| *I) Situación administrativa* | *max. 6 puntos* |
| *1.– Ser funcionario de carrera o contratado laboral indefinido en Centros dependientes del Departamento:* | *4 puntos* |
| *2.– Interino con estabilidad:* | *3 puntos* |
| *3.– Contrato laboral indefinido en Centros Privados:* | *2 puntos* |
| *4.– Profesores de unidades suprimidas:* | *2 puntos* |
| *II) Experiencia profesional* | *max. 4 puntos* |
| *Años de servicio en educación hasta el 31 de enero de 2004 inclusive: 0,5 puntos por año, 0,042 por mes y 0,0014 por día.* | |
| *Total máximo* | *10 puntos* |

II. ERANSKINA: ESKABIDE ORRIA

DATU PERTSONALAK (honekin batera NANaren fotokopia aurkeztu behar dute Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko langileen datu-basean alta emanda ez daudenek).
N.A.N.: ............................................ 1. abizena: ..............................................................................................................
2. abizena: ....................................................................................................................................................................
Izena: ................................................................................................................ Tel.: ............................................

LAN EDO ADMINISTRAZIO DATUAK

Ikastetxea: kodea: 0 1 _ _ Izena: ..............................................................................................................................
Helbidea: .................................................................................. P.K.: .................... Herria: ............................................

Zerbitzu-denbora: urteak: .............., hilabeteak: .............., egunak: ..............

Heziketa-zikloko eta moduluko ematen dituen orduak:

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Heziketa-zikloa: | | | | | | |
| Modulua: | | | | | | |
| Orduak, asteko: | | | | | | |

Prestakuntza Egonaldiak Enpresetan: Lanbide Heziketako Irakasleen Prestakuntza Plana 2004/2005
Enpresarekin adostutako proiektuaren izena:
..............................................................................................................................................................................
..............................................................................................................................................................................

| Enpresa (izena eta helbidea) | Eremua edo Saila | Lanbide Arloa |
|---|---|---|
| | | |

Proiektuaren iraupena ordutan: ..........................................................................................................................
Datak: 200_(e)ko .....................................................ren ............................................ tik ............................................ ra

............................................ (e)n, 200.......(e)ko ................................ aren......................(e)an

Ikastetxeko zuzendariaren oniritzia (1) Ikastetxearen zigilua Eskatzailearen sinadura

ETENGABEKO IKASKUNTZAKO ZUZENDARIA

(1) Oniritzi horrek esan nahi du aitortu egiten dela eskatzailea ikastetxe horretan irakasle lanean ari dela, eta emandako lan- eta administrazio-datuak, bereziki dagokion epigrafean adierazitako zereginak (maila-arloa-irakasgaia eta horien asteko orduak) egiazkoak direla.

# III. ERANSKINA

## ESKATZAILEA ENPRESAKO EGONALDIRAKO ONARTU DUTELA ZIURTATZEKO AGIRIA

........................................................................................................................................................ jaunak/andreak

........................................................................................................................ enpresaren/entitatearen ordezkari legez

........................................................................................................................................................ helbidea duena

.......................................................................ko Lurraldea, ..........................................................................................................

....................................................................................................................................................................... kalea

P.K.: ....................................... Telefonoa: ...................................................................................................................

## HAUXE ZIURTATZEN DU:

.................................................................................................................................................................. irakaslea

onartua izan dela enpresa honetan egonaldia egiteko, ondoko proiektuarekin ..........................................................................

ordu-kopurua ......................................., Aldia: .............................................................................................................., 2004-2005 ikasturtean Enpresetan Prestakuntza Egonaldiak egiteko deia zabaldu duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ebazpenaren arabera

............................................. (e)n, 200.......(e)ko ................................. aren.......................(e)an

ENPRESAREN/ENTITATEAREN ORDEZKARIA

Izpta.:
(Enpresaren/entitatearen zigilua)

IV. ERANSKINA

ENPRESAN EGONALDIA EGIN IZANA ZIURTATZEKO AGIRIA

.......................................................................................................................................................... jaunak/andreak

............................................................................................................................ enpresaren/entitatearen ordezkari legez

.......................................................................................................................................................... helbidea duena

........................................................................................ ko Lurraldea, ........................................................................................

...................................................................................................................................................................... kalea

P.K.: ....................................... Telefonoa: ..........................................................................................................................

HAUXE ZIURTATZEN DU:

..................................................................................................................................................................... irakasleak

prestakuntza-egonaldia egin duela enpresa/entitate honetan, ondoko proiektua gauzatzeko: ....................................................

ordu-kopurua ............................., egun-kopurua ..............................................................................................................,

ondoko aldian eginda (hilabetea eta hileko egunak zehaztu): ..................................................................................................

..........................................................................................................................................................................................,

2004-2005 ikasturtean Enpresetan Prestakuntza Egonaldiak egiteko deia zabaldu duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Ebazpenaren arabera

............................................. (e)n, 200.......(e)ko ................................ aren.......................(e)an

ENPRESAREN/ENTITATEAREN ORDEZKARIA

Izpta.:
(Enpresaren/entitatearen zigilua)

*ANEXO II: HOJA DE SOLICITUD*

*DATOS PERSONALES (Adjuntar fotocopia DNI en caso de personas no dadas de alta en la base de datos de personal del Departamento de Educación, Universidades e Investigación).*
*DNI: ............................................ 1er apellido: ...........................................................................................................*
*2.º apellido: ..........................................................................................................................................................................*
*Nombre: ........................................................................................................... Tfno: ............................................*

*DATOS LABORALES O ADMINISTRATIVOS*

*Centro: código: 0 1 _ _ Nombre: ......................................................................................................................................*
*Dirección: ................................................................................. CP: .................... Municipio: .............................................*

*Tiempo de servicio: ............. años, ............. meses, ............. días.*

*Horas a la semana que imparte en cada ciclo formativo y módulo:*

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| *Ciclo formativo:* | | | | | | |
| *Módulo:* | | | | | | |
| *Horas/semana:* | | | | | | |

*Estancias de Formación en Empresas; Plan Formación del Profesorado de Formación Profesional 2004/2005*
*Denominación del proyecto concertado con la empresa: ...........................................................................................................*
*.......................................................................................................................................................................................*
*.......................................................................................................................................................................................*

| *Empresa (nombre y dirección)* | *Área o Departamento* | *Familia Profesional* |
|---|---|---|
| | | |

*Duración del proyecto en horas: ........................................................................................................................................*
*Fechas: del .................................. al ............................................. del mes de ............................................. de 200...............*

*En ................................................., a ........... de ................................................. de 200...........*

*V.ºB.º del/a Director/a del Centro (1)* *Sello del Centro* *Firma del/a solicitante*

*SR. DIRECTOR DE APRENDIZAJE PERMANENTE*
*(1) Este V.ºB.º implica el reconocimiento de que la persona solicitante es docente en activo en dicho Centro y que son ciertos los datos laborales y administrativos aportados, en especial las tareas (nivel-área-asignatura y horas semanales en cada una de ellas) indicadas en el epígrafe correspondiente.*

*ANEXO III*

*CERTIFICADO DE ACEPTACIÓN DEL SOLICITANTE PARA LA ESTANCIA EN LA EMPRESA*

*D./Dña. ..........................................................................................................................................................*

*Como representante de la empresa/entidad ...............................................................................................................*

*con domicilio en la localidad de ..................................................................................................................................*

*territorio de .........................................., calle ..........................................................................................................*

*CP ...................................................................... Teléfono: ......................................................................................*

*HACE CONSTAR:*

*Que el profesor D./Dña. ...............................................................................................................................................*

*Ha sido aceptado para la realización de una estancia formativa en esta empresa/entidad con el proyecto denominado: ............................*

*..........................................................................................................................................................................................*

*por un total de ....................................... horas, durante el periodo ..................................................................................,*

*según la Resolución del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca Estancias de Formación en Empresas para el curso 2004 - 2005........................................................................................................................................*

*En ................................................., a ........... de ................................................. de 200...........*

*REPRESENTANTE DE LA EMPRESA/ENTIDAD*

*Fdo.:*
*(Sello de la empresa/entidad)*

*ANEXO IV*

*CERTIFICADO ACREDITANDO LA REALIZACIÓN DE LA ESTANCIA EN LA EMPRESA*

*D./Dña.* .......................................................................................................................................................

*Como representante de la empresa/entidad* ...........................................................................................................

*con domicilio en la localidad de territorio de* ...........................................................................................................

*CP* ................................................................... *Teléfono:* ...........................................................................................

*HACE CONSTAR:*

*Que el profesor D./Dña.* ...........................................................................................................................
*Ha realizado una estancia formativa en esta empresa/entidad con el proyecto denominado:*.....................................................
...................................................................................................................................................................
*por un total de* ....................................... *horas, durante un total de* ...................................................................................
*días, en el periodo (especificar mes y días de cada mes)* .............................................................................................
...................................................................................................................................................................
*según la Resolución del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convoca Estancias de Formación en Empresas para el curso 2004 - 2005*.....................................................................................................................

*En* ................................................., *a* ........... *de* ................................................. *de 200*...........

*REPRESENTANTE DE LA EMPRESA/ENTIDAD*

*Fdo.:*
*(Sello de la empresa/entidad)*